

## INAUTERI LAPURTUAK

Arizkun, Nafarroako herri bat da eta bere ezaugarri nagusia inauteriak dira. Inauterietan pertsona bat hartzaz mozorratzen da eta beste batek, baserritarrez mozorratuta, herritik eramaten du soka batzuekin lotuta eta joaldunak jarraituz. Momotxorroak herritik joaten dira, batzuk sokekin, batzuk jendea ikaratzeko, beste batzuk hainbat gauzekin jotzen eta beste batzuk erratzak bezalako objektu batzuekin. Sokak daramatzaten pertsonak jendea hartu eta herriko plazara eramaten dute, han, lurrera botatzeko.

Ni, 12 urteko mutil baxu bat naiz, ile beltzarana daukat eta nire begiak marroiak dira. Ausarta naiz, ez indartsua, ez oso azkarra, baina ausarta. Bi arreba ditut, gazteagoak, eta ez diet kasu handirik egiten.

Aritzek 10 urte ditu baina bera oso altua da, beraz, nire adinekoa iruditzen du. Ilehoria da eta ni bezala begi marroiak ditu. Aparatua darama ahoan, hortzak zuzen izateko eta seme bakarra da.

Herriko plazan geunden Aritz eta biok, nire aita ikusi genuenean.

- Urduri dagoela dirudi. - esan zuen berak.
- Bai, oso urduri dagoela uste dut, seguruenik inauteriak prestatzeagatik.
- Antolatzaile guztiak normalean baino urduriago daude. Zerbait gertatzen dela uste dut.

Larrituta zegoela konturatu nintzen, aldiz, ni oso lasai negoen. Antolatzaileak hitz egiten ari ziren, orduan, haien elkarrizketa entzutea erabaki genuen.

- Baina non dago? - esan zuen nire aitak.
- Ez dakit, seguraski herriko norbaitek hartu du. - erantzun zuen gizon batek.
- Ez, guztiei galdetu diet eta ez du inork hartu hartzaren mozorroa.
- Hori ez da posible, hemen ez dago mozorroa, herriko norbait izan behar du.

Orduan dena ulertu genuen, hartzaren mozorroa falta zen eta horregatik denak urduri zeuden.

Herri honetan etxe zahar bat erabiltzen zuten mozorroak gordetzeko eta dena antolatzeko, ez zen inor bizi hor eta hutsik zegoen beti. Gau horretan zer gertatzen zen hobe jakiteko etxera sartu ginen. Ordu biak ziren joan ginenean, gure gurasoak lotan zeuden. Herriko plazan gelditu ginen eta beti bezala ni Aritz baino lehen ailegatu nintzen.

Agure bat ikusi genuen ailegatu ginenean. Emakume bat zen, oso zaharra, beltzez jantzita eta hartzaren mozorroa zeraman eskutan. Korrika joan ginen bera harrapatzera eta Aritzek ni baino lehen harrapatu zuen, baina agurea ukitu zuenean desagertu egin zen. Bat-batean gertatu zen hori, hor zegoen eta Aritzek ukitu zuenean, hauts bihurtu eta desagertu egin zen.

Hartzaren mozorroa hor zegoen, lurlean botata, hartu genuen eta etxe barruan gorde genuen. Gure etxera bueltatzea erabaki genuen eta bidean ez genuen hitzik esan. Gau horretan ezin izan nuen lorik egin. Pozik negoen eta inauteriak beti bezalakoak izango ziren, baina ezin nuen burutik kendu emakumearen aurpegi beldurgarri eta zahar hori.

Hiru egun falta ziren inauterietarako, Aritz eta biok ez genuen ezer egin, urduri geunden eta lasai egon nahi genuen. Plazan eserita edo herritik bueltak ematen egon ginen, inauterien eguna iritsi zen arte. Hartza ikusi genuenean lasaitu ginen ikusiz dena ongi aterako zela. Ongi pasatu genuen, kezkarik gabe eta dena ondo atera zen. Inauteriak beti bezalakoak izan ziren.

Hurrengo egunean hitz egiten egon ginen, ados geunden oso ongi pasatu genuela, dena ongi atera zela eta ez zela arazorik egon. Erabaki genuen ez geniola inori esango emakumearekin gertatu zena eta guk ere hori ahaztuko genuela, hala ere, nik ez dut inoiz ahaztuko.